

Bakardadea bakarrik

Alex Gurrutxaga

Goizalde Landabosoren bigarren poema liburua da *Babeserako kopia*. Ugaria da gure garaian ni poetikoaren inguruan –eta hari begira– bilbatzen den poesia; kutsu terapeutikoa duten lanak ere ez dira gutxi. Landabosok liburua amaieran aitortzen duenez, poema hauen hastapenean «barruko harra edo dena delakoa ateratzeko ariketa» dago: hori literatura bihurtzea, idazlearen lana.

Harkaitz Canoren hitzaurrea dauka *Babeserako kopia*-k, oso iradokitzailea hasieran: hizpide ditu, adibidez, oroimen artifiziala, eremu digitala eta argazkien pilaketa. Aurrerago Landabosoren poesiaz mintzo da eta, orduan, irakurle hau bat dator gauza batzuetan.

69 poema dauzka liburua, hiru ataletan antolatuta; eta, esan bezala, lana aldenik alden gurutzatzen duena, nitasuna. Lehen poemako «ni naiz» aldarririk ongi erakusten du norbanakoak

daukan garrantzia erabatekoa. Pertsona postmodernoaren bakardadea eta hauskortasuna muinekoak dira: barne desoreka, ez hemen sentitzea, edo gizaki artean egiten duen hotza. Roland Barthesek esana da Robinson Crusoe bat asmatu behar balu, ez lukeela uharte batean jarriko, hiri erraldoian baizik. Halaxe dago

poemategi honetako nia. Egoera horretarik abiatuz, poemek batzuetan arnasa luzea hartzen dute; adibidez, *Ari nazela*-n gai interesgarria azaleratzen da: «Premia eta nitasun oro ahaztu eta besteak jantzi/ gutasun horretan /norbera aurkitzearen simulakroa elikatuz». Simulakroa, bizitza garaikidearen osagai funtsezkoa. Aipatu beharrekoa da, halaber, *Arrazoirik* ez poemaren hasierako ezlekuen eta «destokitzea»-ren garapena ere. Halako osagaiek barne-koherentzia ematen diote liburuari. Hain zuzen, koherentzia semantiko da –hainbat irudiren fintasunarekin batera– liburua bertute nagusietakoa, hala makro-egituran nola poemetan.

Babeserako kopia irakurriz, ematen du norbanakoaren bizitza ezin gogorrago dela. Gu ez gara nor balioespen moralik egiteko, baina sinesgarritasunaz bai mintza gaitzke; zeren poesiak, eleberriak bezalaxe, sinesgarritasuna eduki dezake edo ez. *Babeserako kopia*-z Canok aipatzen duen «gordintasuna» ez dakit



'Babeserako kopia'

Egilea: Goizalde Landabosa.
Argitaletxea: Elkar.

William McIlvanney idazlea, Laidlaw detektibearen sortzailea. IAN ATKINSON

Duintasunaz kezkatuta

Botere nahiak usteldutako gizartean bizimodu duina eramatea posible ote den, horrekin bueltakabil inspektorea familian bertan jazotako ezbeharrak ikertzen hasten denean. *Strange loyalties* (1991, Leialtasun modu bitxiak) nobelan, anaia istripu batean hil dela jakinaraziko diote Laidlawri. Krimenik egon den seinalerik ez dago, baina inspektoreak gertaeraren nondik norakoak aztertze-ari ekingo dio, halere. Horrela jakingo du urte batzuk lehenago anaia eta haren lagun batzuk istripu batean nahasita egon zirela eta gertaeraren lekutik ihes egitea erabaki zutela, egindakoagatik zigortuak izan ez zitezen. Erruduntasun sentimendurekin bizitzera ohitu dira haietako asko. Anaia halakorik sentitzera iritsi ote zen, Laidlawk ez du inoiz jakingo. Ezagutzen zuelakoan zegoen, baina orain zalantzak dauzka anaia inguruan. Gizakia animalia bitxia da.

Abenduaren 5ean hil zen William McIlvanney (Kilmarnock, Eskozia, 1936–Glasgow, 2015), Laidlaw detektibe protagonista duen trilogiaren egilea. Trilogia horrekin jarri zuen abian *Tartar noir* (Zirrikitonezko nobela beltza) deitzen dena, edo Eskoziako literatura beltza.

Hiru olatuak

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Gutxitan jakiten da nondik iritsiko den albiste. Esaterako, udazken gozo honetan, hiru olatu bezala, itsasaldetik iritsi dira. Urri aldera François Bourgeonen *Les Passagers du vent* bolumen bakarren argitaratu zuten Astiberrikoek gaztelaniaz, eta ezin hitzez azaldu itsas abentura haien hartu genuen gozatua. Arnasa doi hartuta, parretsua iritsi zen gure kostalderra Fructuoso eta Harrietzen *Justin Hiriart* baleazalearen abenturen edizio osoa, 1980ko hamarkadan atalka sortutako harribitxi bat, orain arte osorik gozatu ezin izan duguna.

Eta ez bat ez bi, *Kortsarioen ostalua*-k hirugarren olatuaren argi du. Olatu xumeagoa dela

esango dugu, zintzo jokaturik, aurreko bi obrak duela hiru hamarkada maisulanen Olinpora igotako kultuzko bilduma luzeak diren bezala, hirugarren olatu hau laburragoa baita, eta



'Kortsarioen ostalua'

Idazlea: Dani Fano.
Ilustratzailea: Guillermo Gonzalez.
Argitaratzailea: Ikastolen Elkarte.

desberdina... Baina ez makala, ez horixe.

Desberdintasuna helburuetatik bertatik sortzen da, haiek fikziozko obra hutsak ziren bezala, honek fikzioa bitarteko gisa darabilakoa, dibulgazioaren mesedetan.

Bai, hala da, *Kortsarioen ostalua* lanak, komikiarekin batera, azalpen testu harrigarriki ongi dokumentatuak eskaintzen dizkigu, besteak beste komikiko gidoia sortzeko informazioa nondik jaso duten argitzea.

Sei ataletan banatuta dago liburua, egitura errepikatu honekin: atalaren portada ilustratua; 6-8 orrialdeko komiki bat kortsarioen abenturekin; azken orri bat abentura harilkatzeko erabili diren historiako pasarteen agerpenekin, eta itsas-gintza azalpenekin, informazio guztia hainbat testu multzotan banatuta. Azalpenak jasoak direnez, eta gidoiak eskatzen duenean pasarte gordinak agertzen direnez, nerabe eta helduen neurrikoak dira atal guztiak.

Ilustrazio lanean garaiko ezagugarrien errepresentazio fidela egiten saiatu dira, xehetasun txiki- txikiaren ere, eta denboraren ma-

zenbateraino irensten duen poesia irakurleak. Eta azpimarra dezagun: sinesgarritasuna ez da egia errearen menpekoea, baizik eta idazleak sortzen duen fikzioari edo eraikuntza literarioari dagokiona. Nitasunaren irudikapena da poemategiaren zutarrria, baina bertan daude poesia itozten duten elementuak ere. Erosoa da irakurlearentzat poesia hau, erosoegia akaso; mikrokatarsiak aipatzen ditu Canok, eta horretan nago ni ere, baina ez zentzu klasikoan, katarsi horiek *best seller*-en efektura gerturatu dira-eta. Bakardade garaikidearen irudirik jasotzen ditugu, topiko eta erraz antzekoak batzuk, zeinetan irakurleak ni poetikoarekin bat egin dezakeen autokomplazentzia doi batekin. Faltan ditugu, aldiz, sai-kontasuna, geruzak, zuloak.

Goizalde Landabosok orain hamar urte kaleratu zuen *Jat* poema liburua, eta ukazezia iruditzen zait hura baino hobea dela *Babeserako kopia*, eraginkorrak diren elementu tematiko eta formalak baitaizka. Fina da, eta lan poetikoa erakusten du. Halere, honezkerodezente jorratua dago niren hauskortasuna, eta berau poemategiaren muinean jarri eta arnasa luzatzeko, literatura egiteko, zerbait gehiago behar da.

kinan igotzearen inpresioa eragiten dute.

Hurbilpen historikoak fikzioaren eskutik etortzen direnean, egilearen baitan dago emaitza. Oraingoan bibliografiak eta ematen dituzten azalpen ongi dokumentatuak lana zintzo eta zorrotz egin dutela adierazten dute, ordu askotako izerdia nabaritzen da bai testuetan zein irudietan; eta, noski, emaitza ere tamainakoa da, zeren, nire pozerako, historia libururik onenen pareko irakaspene magistral bat jaso baitu komiki honetaz gozatu dudana bitartean.

Informazioa testu korrituan beharrezan multzotan emanda irakurketa arindu egin da, informazioa eskuragarriago jarriaz.

Komikien kalitate historiko eta grafikoa zalantzan jarri gabe, gidoiak pixka bat hankamotz gelditzen dira abentura aldetik. Baita teke formatuak behartutako kontu bat izatea, baina asko eskertuko zen istorioei arnasa apur bat gehiago eman, eta abenturak luzeagoago joko balute.

Dena den ez kasu gehiegi egin nire arrangura honi, ziurrenera bikaintasunak sortzen duen ase-ezintasuna delako jatorri...